

GRADU AMAIERAKO LANA

**BELAUNALDIEN ARTEKO**

**ELKARREKINTZA**

**JARDUERA**

**MOTORRAREN**

**BITARTEKO PROIEKTUA**

Egilea: Mainer Pardavila

Zuzendaria: Olatz Bastarrica

Urtea: 2019/2020

“Todas las personas mayores, fueron al principio niños... aunque pocos lo recuerdan” (Antoine Saint- Exupéry).

“Iragana, oraina eta etorkizuna” (Piaget).



# Laburpena

## Euskeraz:

Gradu Amaierako lan honetan, belaunaldien arteko aurrepausu bat eman nahi da. Bi belaunaldien (haur eta agure) arteko interakzioa, jarrera prosozialak areagotuz, inklusioa eta kohesioa emanez. Herritarrek jakin behar dute adin guztientzako gune irekiak eta publikoak direla, eta bertan eskaintzen diren zerbitzu zein belaunaldi arteko jardueraz goza dezaketela.

Proiektu honekin belaunaldien arteko harremanak sustatu nahi dira, hau da, belaunaldi ezberdinetako pertsonen arteko lankidetzak, interakzioa eta elkartrukea areagotu, trebetasunak, ezagutzak eta esperientziak partekatuz. Jarduera motorraren bidez, lortu nahi den helburua honako balio hauekiko kontzientzia hartzea da: interesa piztea eta garapen pertsonala zein soziala, metodologia ludiko eta motibatzaile batean erabiliz.

**Hitz-gakoak:** belaunaldia, elkarrekintza, jarduera-motorra

## Erderaz:

En este trabajo de fin de grado, se ha intentado dar un progreso entre generaciones. Interacción entre las dos generaciones (niñxs y ancianxs), agudizando una actitud prosocial, mediante cohesión e inclusión. Los ciudadanos deben saber que son espacios abiertos y públicos para todas las edades y que pueden disfrutar tanto de los servicios como de las actividades intergeneracionales que se ofrecen en el mismo.

Con este proyecto se pretende fomentar las relaciones intergeneracionales, es decir, que se incremente la cooperación, la interacción y el intercambio entre personas de diferentes generaciones, compartiendo habilidades, conocimientos y experiencias. Mediante la actividad motriz, el objetivo que se persigue es la toma de conciencia hacia los valores que se transmiten, con el fin de despertar el interés y potenciar el desarrollo personal y social utilizando una metodología lúdica y motivadora.

**Palabras clave:** generación, interacción, actividad motriz



## Ingelesez:

In this end-of-degree work, we have tried to make progress between generations. Interaction between the two generations (children and elder people), sharpening a prosocial attitude, through cohesion and inclusion. Citizens should be aware of this open and public spaces for all ages and where they are both, services and the intergenerational activities offered.

This project aims to promote intergenerational relations, in order to do so, increasing cooperation, interaction and exchange between people from different generations, sharing skills, knowledge and experiences might help. Through the motor activity, the objective is to raise awareness of the values that are transmitted, in order to wake interest and promote personal and social development using a playful and motivating method.

Keywords: generation, interaction, motor activity



# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Justifikazioa</b>	<b>6</b>
<b>3. Testuingurua</b>	<b>6</b>
3.1 Ikastetxearen kokapena	6
3.2 Eskolako metodologia	7
<b>4. Marko teorikoa</b>	<b>10</b>
4.1 Jarduera motorra	10
4.2 Gizartearen hazkundera	12
4.3 Zer da belaunaldien arteko elkarrekintza bat?	13
<b>5. Metodologia</b>	<b>15</b>
5.1 Justifikazioa	15
5.2 Helburuak	16
5.3 Hipotesiak	16
5.4 Lagina	17
5.5 Tresnak eta prozedurak	17
<b>6. Emaizak</b>	<b>18</b>
6.1 Deskribapena eta analisia: arrazoiak, aurkitutako konponbideak	18
6.2 Galdetegia Haurrak	20
6.3 Galdetegia Helduak	20
6.4 Galdetegia Gurasoak	20
6.5 Behaketa taulak	21
6.6 Korrelazioa	21
<b>7. Ondorioak eta hausnarketa</b>	<b>22</b>
<b>8. Etorkizuneko ikerketa lerroak eta gomendioak</b>	<b>23</b>
<b>9. Eskerrak eman</b>	<b>23</b>
<b>10. Bibliografia</b>	<b>24</b>
<b>11. Eranskinak</b>	<b>27</b>

## 1.Sarrera

Hurrengo orrialdeetan garatuko den Gradu Bukaerako Lanean gaur egungo gizartearen kohesioa emateko lehenengo urrats bat eman nahi da. Txosten honetan, belaunaldien arteko elkarrekintza bat nola gauzatu den analisia, prestakuntza, emaitzak eta ondorioak plazaratuko dira. Lau urteko haurrek ikas dezaten, hezkuntza-proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dira. Halaber, erronkek garrantzi handia dute, hazteko motibazioa bultzatzen baitute. Arlo pertsonalean eta intelektualean hazteko, kanpo-jarduera handia (jolasa, mugimendua) behar da, baina baita barne-jarduera handia ere. Beraz, hezkuntza-proposamenek ikasteko egokiak izan behar dute, eta gozatzeko eta saiatzeko aukera eman behar diete hurrei, giro ludiko eta alaian, estimuluak doiak direla. Hau honela izanik, testuinguru desberdin bat bilatze aldera, haurren eta zaharren arteko elkarrekintza gauzatu da. Amaitzeko, proposamenaren ondorioak eta hobekuntza proposamena ere eskaintzen dira.





## 2. Justifikazioa

Lehen aipatu bezala, lau urteko haurrei hezkuntza-proposamen uniformeak eta askotarikoak eskaini behar dizkiegu. Hau honela izanik, haurrak eta adineko pertsonak elkartzea berebiziko proiektua izango zela pentsatu nuen.

Jolasaren bidez, haurrek mundua ikertzen eta deskubritzen dute, gainerako pertsonekin harremanetan jartzen dira, orokorrean berdinen arteko pertsonekin eta beren gaitasunak erabiltzen eta garatzen dituzte. Horregatik, testuinguru desberdin bat bilatze aldera, zaharren egoitzarekin proiektu bat bideratzeari ekin nion. Adin horietan, ez dago jolas-jardueren eta ikaste-jardueren arteko alderik: egiten duten jarduera ororekin ikasten dute haurrek, eta jarduera horiek, batik bat, jolasetan oinarrituta egon behar dute. Jolasa da haurtzaroko jarduera nagusia, eta adineko pertsonak asko eskertuko dute hori. Gehitzekoa da, nire amona Berra- zahar egoitzean bizi dela, beraz, proiektu hau aurrera eramatea motibazio gisa izan da.

## 3. Testuingurua

### 3.1 Ikastetxearen kokapena

Harri Berri-Oleta HLH ikastetxea Donostiako Altza auzoan kokatutako ikastetxea da, ikastetxe honek ikasleria hiru eraikinetan banaturik dago: bi Haur Hezkuntzako umeentzat (2-6 urte) eta bat Lehen Hezkuntzako umeentzat (6-12 urte), izaera publikoa, eta ideologikoki anitza da. Altza langileen auzo bat da, garai batean etorkin asko etorri ziren. Auzoaren egoera sozial eta ekonomikoa azken krisiarengatik nahiko larria da. Urteetan zehar jasan duen egoera zailak anitzak izan dira, une honetan ere zonaldeetik paroaren tasa duenaren handienetariko bat da. Ikasleen maila sozioekonomikoa, ikastetxeko ISEKak adierazten duen bezala baxua da. Laguntza sozialekin familia ugari daude, ikasleen artean bi heren baino gehiago bekadunak dira. Era berean badaude familia beste egoera sozial eta ekonomiko desberdinak daudenak, ikasleria aniztasun handikoa da. Hain zuzen ere, %10a

etorkina da, eta beste errealitate batzuen isla era badago ikastetxean; gutxiengo etnikoak, Gizarte Zerbitzuetako ikasleak eta Diputazioko ardurapean dauden ikasleak.

Ikasle etorri berriak izateaz gain epez kanpo matrikulatzen diren ikasle kopurua ere badago. Ikastetxean egin diren Ebaluazio Diagnostikoei esker eta hauen ondorioz sortutako Hobekuntza planak direla medio, haien indarguneak eta hobetzekoak errazago identifikatu zituzten. Gaur egun, ikastetxearen bi zutabe nagusiak Hobekuntza Plana eta Urteko Planak dira.

## **3.2 Eskolako metodologia**

### **Amara-berri sistema**

Ikertzea, saiakuntzak egitea eta berritzea Amara Berri Sistemaren ezaugarriak izan dira eta dira. Hezkuntza-asmoaren, praktikan jartzearen eta ikastetxearen antolamendu eta prestakuntza egituren arteko koherentzia bermatzea da haien lehentasunetako bat.

Gaitasunetan oinarritutako curriculumaren marko teorikoa garatzen dute, eta ikasgeletako jardueretan zehaztu; horrek metodologia-aldaketak dakartza haien hezkuntza-jardunean eta antolamendu-aldaketak, berriz, antolatzeko moduan. Aldaketa horiek, aldiz, hezkuntza-komunitateak osatzen dituzten elementuen arteko rol berriak eta gauzak egiteko modu berriak sortzen dituzte. Ikastetxeetan proiektu globalak abian jarrita, norabide horretan aurrerapausoak ematen ari dira. Haien ustez, garrantzitsua da, ikuspegi global batetik, sortzen ditugun ekimen guztiak eskola bakoitzaren kulturarekin bat egitea. Izan ere, kultura hori propioa da eta etengabe hazten ari da; bertan, denak sentitzen dira inplikaturik eta hobetzea helburua ez ezik bitartekoa ere bada.

Ikasleari buruz duten kontzepzioa da haien ardatza: Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaie: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak, haien helmuga haurren garapen armoniko eta globala





sustatzea da. Beraz, eskolako helburu orokorrak biziki lotuta daude garapen hiru esparru hauekin. Norberak bere kontzeptu eta emozio eskematik abiatzen da, alegia, bakoitzak dakizkien gauzak dakizki eta modu ezberdinean bizi ditu. Norberak ere bere ahalmena du. Haurren jolaserako interesa eta helduen mundua imitatzeak duen erakertasuna abiapuntutzat hartzen dituzte, haur guztiak batzen dituen berezitasuna da eta.

Printzipio metodologikoak ikaslearen kontzepzioarekin guztiz lotura daude eta gure egunerako eginbeharra bideratzen dute:

1. INDIVIDUALIZAZIOA: Eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.
2. SOZIALIZAZIOA : Kideen arteko elkarreraginak aurrera jotzen eta haien eskemak aldatzen laguntzen die: horregatik, haiek proposatzen dituzten aktibitate guztiak testuinguru sozialak dira.
3. AKTIBITATEA: “Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin”. Haien helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak, jakin-mina dutenak lortzea da.
4. SORMENA: Gizaki orok duen gaitasuna da. Eremu guztietan sustatzen dute, pertsona bakoitzak barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.
5. ASKATASUNA: Besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da, honi “ muga soziala” deitzen diote.
6. NORMALIZAZIOA: Haur bakoitzak inguruan duen espazioa eta bizitzen ari den egoeraz jabetzen joateari deitzen diote normalizazio prozesua. Egoera berri eta

aldakorren aurrean bere buruarekiko konfiantza sustatu nahi dute erantzuna ahalik eta baikorrena izan dadin.

7. GLOBALIZAZIOA: Bizitza globala da. Haurra bizirik eta bizitzen nahi dute eskolan eta bizi delako ikasiko du.

Curriculumaren dokumentuaren bitartez aurreko ideiak egunerako praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz duten ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku-hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten ditu. Ondoren datozen metodologia ezaugarriek, ikuskera eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia adierazten dute.

Departamentuetako antolaketa bera ere esku-harmenerako oinarritzko estrategia da haientzat. Osagarri eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dute, hau da, ikuspuntu multidisziplinarean arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei testuinguru sozial, egonkor eta osagarriak deitzen diete. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako eta osagarriak, aktibitateen baturak curriculum osatzen duelako.

Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaine irteeretan zertarakoa edo helburua dute. Lanak irteera desberdinak izan ditzake, gela barruan besten aurrean aurkeztu, antzeztu, erakusketan azaldu...Aktibitate bakoitzak bere lan metodoak ditu, ikasleak bere eginkizuna era antolatuagoan burutzen joan dadin. Kritika eraikitzaileak aurreratzeko baliabidetzat jotzen dute.

Aniztasunaren aldekoak dira. Daukaten programari ikasle bakoitzak bere erritmo eta mailaren arabera heldu diezaioke. Ikasketa prozesua ez da adinarengatik geldiarazten. Ezberdintasuna aberasgarria da eta ez diskriminatzeko arrazoia. Ikastetxeak badu Arreta Bereziko Zerbitzua. Honek eskolaketan zehar edo une jakin batean hezkuntza premia bereziak (edonolako zailtasunak, gaitasun urriak edo apartak ,... ) dituen ikasleriaren beharrei esku-harmen zehatzagoen bidez erantzuten saiatzen da.



## 4. Marko teorikoa

### 4.1 Jarduera motorra

Haur Hezkuntzan, hots, 0-6 urte bitarteko haurretan, mugimenduak eta keinuak adierazteko ezinbestekoak dira. Gorputz adierazpena komunikatzeko eta adierazteko tresna da, baina honi definizio bat ematea nahiko zaila da, kontzeptu oso abstraktua delako (Vizcarra, 2014). Hala ere, historian zehar hainbat aditu saiatu izan dira gorputz adierazpena sakonki definitzen. Batetik, Sierra-ren (1996) ustez, gorputz-adierazpena da gorputza erabiltzea, barneratzea, bilatzea eta onartzea, gorputza erabiltzen baita emozioak, ideiak, pentsamenduak, sentipenak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko, sormena gauza guztien aurretik jarrita. Nahiz eta definizio zehatzik ez egon, gorputz adierazpenaren bitartez, emozioak, sentimenduak, intentzioak edo nahiak komunikatzen dira. Romero-k (1999) baieztatzen duen bezala, mugimendua, gorputza eta sentimenduak ezinbestekoak diren baliabideak dira xede komunikatibo, estetiko eta adierazkorra lortzeko. Gainera, Haur Hezkuntzan eskoleetan egindako proposamen motorrak haurraren osotasunean eragina dute, eta pertzepzio-motor, motor-fisiko eta afektu-harreman faktoreen hobekuntza eta garapen orokorrari zuzenduta daude (Gil Madrona et al., 2008).

Hau honela izanik, jarduera motorra, jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirolak, ongizate pertsonala eta soziala bermatzen dute. (Berri Gasteiz, u.e ).

Hau guztia kontutan hartuta, gaur egun, Espainian, psikomotrizitatea oso lotuta dago haurtzaroarekin eta haurraren garapen ebolutiboarekin, hezkuntza-premia berezien ondorioz. Horren ondorioz, beste kolektibo batzuekiko esku-hartze psikomotorrak txikiagoak dira eta jarduteko moduei buruzko bibliografia eta informazio gutxi dago. Egoera horretan daude haurtzaroan ez dauden beste talde batzuekin lotutako esperientzia psikomotorrak, hala nola, adinekoak. ( Alonso eta Moros, 2011).



Psikomotrizitatea diziplina ez-farmakologikoa da, Terapia Okupazionalaren babespean, eta lau ardatz nagusiren gainean jarduten du: motorra, kognitiboa, afektiboa eta soziala, bai adin txikietan bai hirugarren adineko pertsonetan. Beraz, psikomotrizistek planifikatutako eta garatutako terapia mota bat da, pertsonak aurrez aipatutako alderdi bakoitzean hobera egin dezan. (Stima, 2019)

Zahartzearen ondorioz, adineko pertsonak ibilaldi bat hasten du, batez ere narriadura kognitibo, fisiko, motor eta emozionalagatik, eta horrek eragin handia du bere egunerokotasunaren garapen normalean, bere gaitasun funtzional eta sentensorialetan, bere autoestimuan edo harreman sozialekiko interesetan. (Stima, 2019)

Esku-hartze psikomotorra esku-hartzearen adibide argia da, adinarekin bat datozen estrategia eta trebetasun berriak ikastea ahalbidetzen duena. Bertan hainbat jarduera proposatzen dira, teknika aktiboak (musikoterapia, jolasak, eskulanak, dantza, gimnasia leuna, gorputz-adierazpena, kirola, etab.) eta pasiboak (masajea, erlaxazioa, mobilizazio pasiboa, etab.) erabiliz. Jarduera horien guztien helburua da egiten dituen pertsonari laguntzea, sentimenduak eta emozioak adierazten, mugimenduak koordinatzen, talde baten barruan edo maila indibidualean erabakiak hartzen laguntzea, antsietatea eta estresa murriztea, trebezia sozialak eta kognitiboak lantzea..etb. (Bernaldo, 2009)



## 4.2 Gizartearen hazkundea

Haurtzaroaren, nerabeztararen eta helduaren ondoren, hainbat kontzeptu erabiltzen dira adineko pertsonak izendatzeko, hala nola hirugarren adina, zahartzarua edo adineko pertsonak. Bestalde, gizarte-zientzien ikuspuntutik, lan- eta gizarte-bizitza aktibotik erretirora igartzeko urratsa da, gizabanakoak komunitate batetik kanpo uzten dituen: "Zahartzarua pertsona baten egoera da, adinean gora egiten duela, eta pertsona horrek bere organismoaren gainbehera biologikoa eta parte-hartze sozialaren etena jasaten ditu". (Laforest, 1991).

Quintana eta Sanz (1997) et Aramendi, P. (2006) autoreek heldua definitzeko bost ikuspuntu aztertu zituzten:

- Antropologia eta legearen ikuspuntutik, helduaren kontzeptuak adiera desberdinak izan ditzake.
- Ikuspegi juridikotik, gaztea adinez nagusi denean heldua da jada, hots, hemezortzi urte bete bezain pronto.
- Soziologikoki "belaunaldia" kontzeptua aipatzen da bereziki. Gizarte desberdinetan bada gainbehera doan belaunaldia (65 urtetik gorakoak), gizarte zuzentzen duen bestea (31-65 urte) eta, azkenik, belaunaldi gaztea (15-30 urte). Helduak, hortaz, 30 urtetik 65 urtea bitarteko pertsonak dira.
- Psikologikoari dagokionez, pertsonaren garapenaren ezaugarrien arabera definitzen da heldutasunaren kontzeptua. Identitatea sendotzea, aldaketa fisiologikoak eta ezagutza (pentsamendu hipotetiko-deduktiboa) eta izaera garatzea dira helduaren ezaugarriak.
- Pedagogian, heldua hezkuntzaren ikuspuntutik definitzen da. Hezkuntza sistema (eskola sistema) utzi duten pertsonak berriro formatzeari ekiten diote tituluren bat lortzearren, lanerako birziklatzearren era bizitzako aspektu jakinetan formatzearren (parte-hartzea, aisialdia, eztabaida taldeak...).

la gizarte guztietan, pertsonak gizarte horren berezko irizpide eksklusiboen arabera har daitezke helduentzat.

### 4.3 Zer da belaunaldien arteko elkarrekintza bat?

Belaunaldien arteko programak funtsezko tresna dira. Adinekoen eta belaunaldi gazteagoak diren arteko erlazioak hobetu eta estimulatu ez ezik, garapen pertsonala, afektiboa eta soziala ere bultzatzen dute. (Buenas Practicas modelo y ambiente).

Lehenik eta behin, belaunaldien arteko elkarrekintzaren definizioa aztertuko da, autore desberdinez baliatuz. Vega eta Buenoren arabera (1994), honela defini daiteke Belaunaldi arteko programa: "Helburu jakin batzuk lortzeko asmoz planifikatutako jardueraren baten bidez belaunaldi bat baino gehiago batzen dituen". Hau da, hainbat belaunalditako pertsonen arteko lankidetzak, elkarrekintza eta trukea areagotzen duten jarduerak edo programak. Gazteen eta adinekoen artean trebetasunak, ezagutzak eta esperientziak partekatzea eskatzen dute "(Ventura-Merkel eta Lidoff, 1983). Belaunaldien arteko programek "gazteak eta adinekoak elkartzen dituzte, bi taldeei mesede egiten dieten esperientziak partekatzeko. [...] Lotura biologikorik gabeko adinekoak eta gazteak belaunaldien arteko lotura afektiboak eta kultura-trukea sustatzen dituzten eta belaunaldi gazte eta nagusien ongizatea eta segurtasuna mantentzen laguntzen duten laguntza-sistema positiboak ematen dituzten elkarrekintzetan inplikatzeko diseinatuta daude "(Newman, 1997).

Honen harira, belaunaldien arteko programak baliabideak modu zehatz eta jarraituan trukatzeko eta belaunaldi zaharrenek eta gazteen artean ikasteko tresnak dira, banakako eta gizarteko onurak lortzeko" (Hatton-Yeo eta Ohsako, 2001). Haur, gazte eta adinekoen arteko elkarrekintzak sustatzeko programa bat da, etengabeak, elkarrekiko onuragarriak eta harremanak garatzera daramatenak "(McCrea, Weissman eta Thorpe-Brown, 2004

Hau da, proiektuaren helburua belaunaldien arteko elkar-trukea ahalbidetzen duen metodologia da (Pinazo eta Kaplan, 2007). Izan ere, belaunaldien arteko programa baten helburua, berez, belaunaldi desberdinen arteko trukea da, eta berriaz diseinatuta dago hori bultzatzeko.(Bentacor, 2010).



Belaunaldien arteko harremana oso alderdi garrantzitsua da gure esparru soziokulturalean, eta adin desberdinetako pertsonak elkartzen saiatzen gara, elkarrekin jarduerak egiteko, belaunaldi bakoitzak bere ikuspegia emanaz eta lantzen ari garen horri buruzko iritziak eta ikuspuntuak trukatzuz. Jarduera horiek eginez, berariazko helburuen zerrenda eta irismena lortzen da, banakako eta taldeko onura eta ikaskuntza lortzen dira. (Becerril González, 2015).

Honen arabera, biztanleria-sektoreen (gazteak, helduak, adinekoak, haurrak) arteko elkarrekiko ezagutza eta komunikazioa hobetzen du, komunitate-loturak sortzen ditu, herritarrek erronkei eta ezbeharrei aurre egiteko duten gaitasuna hobetzen du, baita autoestimua ere, aldaketa positiboak eta agerikoak nola eragiten dituzten ikustean, herritarren erantzukizuna, parte-hartzea eta pertsonen konpromisoa hobetzen ditu. (Battle, 2013). Ikasleen ikaskuntza errazten du eta emaitza positiboak indartzen ditu: ikasleen garapen integrala errazten du, autoestimuan eta jarduera motibatzaileekiko gogobetetze pertsonalean zuzenean eraginez. Irakasleen, hezkuntzan esku hartzen duten profesionalen eta ikastetxeen hobekuntza eta aldaketa metodologikoa bultzatzen ditu: irakaslearen eta ikasleen rol tradizionala birdefinitzen du eta jardunbide egokiak indartzen ditu. Eskolaren, komunitatearen eta lurraldearen arteko harremana eta integrazioa bultzatzen ditu: komunitatearen potentziala erabiltzen du, ikastetxeen parte-hartzea sustatzen du ingurune sozial eta geografikoan, sare sozial parte-hartzaileak sortzen ditu, kohesio soziala indartuz. Hezkuntzaren dimentsio etikoa azpimarratzen du: zertarako hezi zalantzan jartzen du, ikaskuntzaren alderdi kognitiboak eta moralak integratzen ditu, eraldaketa eta hobekuntza sozialak egiteko jarduten du, balioetan hezten du hainbat testuingurutan lan egitearen ondorioz. (Palos, 2009).



## 5. Metodologia

### 5.1 Justifikazioa

Lehen aipatu bezala, lau urteko haurrei hezkuntza-proposamen uniformeak eta askotarikoak eskaini behar dizkiegu. Horretarako, metodologia aproposa erabili behar da proiektua aurrera eramateko. Ikaskuntza eta zerbitzua bi elementu bereizitara hurbiltzeko pentsatuta dagoela dirudien hezkuntza-proposamena denez, gizarte-beharrak estuki lotuz, komunitatearen aldeko zerbitzua eginez eta edukiak, balioak eta gaitasunak ikasgeletan eta, batez ere, haur-hezkuntzan zuzenean inplikatzeko beharrezkotzat jotzen da; izan ere, zenbat eta lehenago oinarri sendo eta sendo bat eratu, orduan eta garrantzi handiagoa izango dute ekintza horiek etorkizunean, eta, jakina, handiagoak izango dira.

Kasu honetan, zeharkako metodologia eraman da aurrera, alde batetik, interbentzioa eman da, egoerak egoera, eta Covid-19 dela eta, interbentzioa erdizka geratu da. Hau da, interbentzioa aurrera eramateko 4 saio behar ziren, eta saioetan ikusten zen dena dokumentatzeko eta gordetzeko, galdetegiak eta inkestak erabili dira. Proiektu honen arabera, ikaskuntza "ikasleentzat erabilgarria eta esanguratsua denean eta horrek ezagutzaren eraikuntzan aktiboki parte hartzen duenean soilik gertatzen den eraikuntza-prozesu bat da" (Parages eta López Melero, 2012, 87. or.).

Esan beharra dago, emaitzak atera direla baina erdizko emaitzak, ez direlako absolutuak. Beste alde batetik, prozesuan ere zentratu gara, hau da, bi saioetan gertatu den oro kontuan hartu dugu. Beraz esan dezakegu, erdizko metodologia erabili dugula proiektu hau aurrera eramateko, bai interbentzioa bai prozesuaren garrantziaz jabetzea. Izan ere, "Irakaskuntza ez da aldeztu aurretik ezarritako helburu finkoak lortzeko bitarteko bat, baizik eta hezkuntza-asmoaren oinarri diren balioak gauzatzeko espazioa" (Pérez Gómez eta Gimeno 1992).





## 5.2 Helburuak

Gratu Amaierako lan honen funtsa belaunaldien arteko elkarrekintza Haur Hezkuntzako 4 urteko haurren eta Berra Zahar Egoitzaren arteko elkarrekintza gauzatzea izan da. Horretarako hainbat helburu zehatz aintzat hartuko dira:

**1- Belaunaldien arteko inklusioa.** Komunitate barneko kideen arteko errespetuzko harremanak sustatu eta indartu.

**2- Belaunaldien arteko berdintasunak eta desberdintasunak jarduera motorrean behatzea.**

Halaber, azpihelburuak ere azpimarratu nahiko nituzke: kohesio soziala, motibazioa, jarrera prosoziala, autoezagutza eta zeharka ahozko hizkuntza lantzea.

## 5.3 Hipotesiak

**-Haurren eta agureen arteko harremana eman da?**

**-Parte-hartzaileen aldetik jarduera motorrean berdintasunak ikusi dira?**

**-Proiektu honen helburuak bete dira?**

**-Etorkizun batean proiektu hau jarraipena izan dezake?**

**-Haurrak gustora sentitu dira?**

**-Zaharrak ondo moldatu dira haurrekin?**

**-Jarduerak egokiak izan dira?**

## 5.4 Lagina

Parte-hartzaileei dagokionez, alde batetik, Harriberrio-oleta ikastolako lau urteko haurrak ditugu, eta beste alde batetik, Berra- zahar egoitzeko adineko talde bat (5 emakume). Programazioari dagokionez, lau saio eramango dira aurrera, guztietan jarduera motorra eta ahozko hizkuntza sustatuko dituztenak (*Ikus bitez, 1 eranskinean*).

Lehenik eta behin, haurren ezaugarriak eta interesak kontuan izanda, proiektuari harrera moduko bat eskaini nion. Aurretiko prestakuntza bat, “Amona Marilutxi” ipuina irakurri eta batzarrean modu lasaian gaiaren inguruan hitz egin hurrekin.

Denboraren antolakuntzari dagokionez, lau saioak ordu erdikoak izango dira, eta Berra zahar egoitzean gauzatuko dira. Eskola eta zaharren egoitza oso gertu daude, beraz, irteerak oinez egingo dituzte (*Ikus bitez, 2 eranskinean*).

## 5.5 Tresnak eta prozedurak

Saioetan zehar, nire papera behatzaile ez ezik, gidatzaile ere izango da. Ebaluazioari dagokionez, nire helburuak bete diren jakiteko hurrei aurrez aurre elkarrizketa txiki bat egingo diet, aldiz, adineko pertsonen inkesta bat pasako diet (*Ikus bitez, 3 eranskinean*) eta gurasoen iritzia ere kontuan hartuko da (*Ikus bitez, 7 eranskina*). Hala ere, prozesu osoan suertatutako emozioak, sentimenduak eta sentsazioak aintzat izango ditut. Jarduera motorrari dagokionez, haur eta heldu bakoitzari, saio bakoitzeko behaketa taula bat beteko dut, (*Ikus bitez, 8 eranskina*) ikaskuntza dialogikoan oinarritzen naizelako, hau da, prozesuan zentratuko naiz, eta ez lortutako emaitzetan.



## 6. Emaidzak

### 6.1 Deskribapena eta analisisa: arrazoiak, aurkitutako konponbideak

Lehenik eta behin, proiektu honen jatorria Grala aukeratzeko momentuan sortutako ideia izan zen. Nire amona Berra egoitzan bizi da, eta han haurren gabezia eta belaunaldien arteko interazio eza ikusi eta nabaritu nuen. Hau honela izanik, eta nire amona hain garantzitsua izanda, proiektu hau nola bideratuko nuen pentsatzen hasi nintzen. Oso hunkigarria eta polita izan da.

Proiektua aurrera eramateko hainbat zailtasun eta ezusteko izan nituen. Lehenik eta behin, eskolak proiektua aurrera eramateko baimena kendu zidan, ikastolako urteko plangintzan ez zelako sartzen. Hau honela izanik, haur batzuen gurasoekin hitz egin nuen, proiektua eskolako ordutegitik kanpo gauzatzeko. Lau gurasoen erantzuna baiezkoa izanda (*Ikus bitez, 4 eranskina*), lehenengo saioa 2020ko otsailaren 13an aurrera eraman nuen. Hasteko, haurrak eskolatik irten bezain laster, patioan bildu nituen hiru haurrak, bat gaixo zegoelako. Berra bidean, haurrak urduri nabaritu nituen, baina motibazio eta interes oso altuarekin, galdera asko galdetzen zizkidaten, hala nola, zer egingo dugu?, abestea gustatzen zaie?..etab.

Behin zaharren egoitzean egonda, espazio batera iritsi ginen, gelan 5 emakume aurkitzen ziren, aurpegian alaitasuna erakusten zuten. Haurren lehendabiziko jarrera nire ondotik ez mugitzea izan zen baina pixkanaka pixkanaka askatzen joan ziren. Egoerak egoera, saioa dinamizatzen (aurkezpenak egin zituzten, haurrak abestu zuten, emakumeak ere txikitako abestiak abestu zituzten) hasi nintzen, hau da, lehendabiziko uneetan nire parte hartzea- aktiboa izan zen, haur eta agureen artean oraindik ez zelako konexiorik sortu, eta egoera oso epela zen. Lehenengo saioaren helburua, elkar ezagutzea zen horretarako, haur eta agureen artean interakzioa ez ezik identifikatuta ere sentitzeko prozesua erraztu behar nuen. Aurkezpenak egiteko unean, bi belaunaldiak identifikatuta sentitu ziren, alde batetik, haurrak Amara berri sisteman murgilduta daudenez, eta antzerkiak egiteko unean uneoro aurkezpenak egiten dutenez ez zen zaila izan haietzako, beste aldetik, emakumeak egoitzan egonda ohituta daude bere buruak aurkeztera. Abestiak, momentuak,



oroitzapenak...dira, emakumeentzat kantak abesteak, lehenaldirako bidai moduko bat da. Azkenean, abesteekin emozioak sentsazioak plazaratzen ari dira. Momentu horretan, haur eta emakumeen artean konexio edo binkulu bat sortu zen. Geroago, objektuaren jolasa egin zuten, hau da, objektua erabiltzea haren funtzio ez den beste funtzio bat eginez. Ondoren, haien arteko elkarrizketak sortu ziren, modu naturalez, besteak beste: hemen bizi zara?; “bebe”bat daukazu?; nola deitzen da zure etxea?. Azkenik, gelan erlaxatzeko egiten zuten jarduera bat aurrera eraman genuen (*Ikus bitez, 5 eranskinean*).

Bigarren saioari dagokionez, esan beharra daukat, haurren eta emakumeen arteko harremana indartuta zegoela. Saio honen helburua, lehenko konexio hori areagotzea zen, hau da, sortutako konfidantza sendotzea. Saioari hasiera emateko, izenak birgogoratu genituen. Hau honela izanik, haien arteko elkarrizketa txikiak sortzen joan ziren. 20 minutu libre utzi nien, eta gero gidatzaile moduan jarduera batzuk planteatu nituen. Jarduerak honako hauek izan ziren; zaharren mugikortasun murriztua zela eta, lehenik planteatutako jarduerak moldatu nituen. Jarduera motorra sustatze aldera, pelota txiki batekin bular-paseak eginez, haien artean hitzak esan behar zituzten. (Adibidez: “Bonito” ; “Risueño” ; Pelo blanco..). Lehen saioan konturatu nintzen, bi belaunaldiak oso gogoko zutela abestiak entzutea, abestea eta dantzatzea, haurren kasuan. Beraz, abesti desberdinak entzun zituzten, eta zer sentsazio edo sentimendu pizten zitzairen partekatu behar zuten. Esan beharra dago, emakumeak esan zituzten abesti ia gehienak, bai izan ezik, erderazko kantak zirela. Aldiz, haurrak gaur egungo euskal kantak proposatu zituzten, abestu eta dantzatu ez ezik, emozio positiboak partekatu zituzten (Adibidez: Eman muxu). Azkenik, erlaxatzeko jarduera eraman genuen aurrera. Umeentzat bezain onuragarria da mindfulnessa helduentzat. Hurrei mindfulnessa irakastearen helburuetako bat da beren barneko eta kanpoko esperientzien kontzientzia garatzeko trebetasunak ematea, beren pentsamenduak, emozioak eta gorputzean duten eragina ezagutzen ikas dezaten, bulkadak hobeto kontrola ditzaten, beren adimen emozionala gara dezaten eta ongizate handiagoa lor dezaten. Azkeneko ariketa honetan, giro oso polita sortzen da, haur eta heldu bakoitzak bere gorputzaren jabetzaz ohartzen da, eta lasaitasuna eta pakea arnastu daiteke.

## 6.2 Galdetegia Haurrak

Proiektu honen protagonistak haurrak zein adineko pertsonak izan dira. Beraz, haien iritzia kontuan hartzea ezinbestekoa ikusten dut. Hiru haur izanik, inkesta modu kolektiboan egin nuen, hau da, solasaldi txiki bat gauzatu nuen hurrekin, bakoitzaren iritzia kontuan hartuz eta txandak errespetatuz. Haurrei honako galdera hauek plantetau nien:

Ondo pasatu duzue? Lagun berri hauekin jolastea gustatzen zaizue? Zer jolas erakutsi nahi diozue? Berriz ere etortzea gustatuko litzaizueke? Zuen aiton-amonekin jolasten duzue?

Haurren erantzun batzuk: “oso ondo pasa dut” ; ¿porque cantaban en castellano?: “se parece mucho a mi abuela, lo único que no siempre esta sentada”; “¿mañana despues del cole vamos a ir?”.

Haurren interesa emakumeekiko oso altua zela nabaritu nuen, kezka, galdera asko zituzten, eta berriz ere egoitzara joan ziren edo ez galdetzen zuten.

## 6.3 Galdetegia Helduak

Emakumeen feedback-a ezinbestekoa izan da, horretarako galdetegi bat eraman da aurrera. Oso pozik egon dira, bi saio hauekin, saioak bukatzen ziren heinean, “¿Cuando vais a volver? Sabeis que podeis volver cuando querais ricuras, nosotras no nos movemos” esaten zuten oso alaitzu. (Ikus bitez, 3. Eranskinean). Galdetegietan, beste antzeko programa batean parte hartu nahi dutela aitortu dute.

## 6.4 Galdetegia Gurasoak

Haurren senideak bigarren inkestatuak izan dira; hauek umeen lehenengo sozializazio agenteak direla ezin delako ahaztu. Eta aldi berean, proposamen didaktikoan islatzen den bezala, familien ikuspegi desberdinak kontuan hartu eta errespetatu egin behar direlako. (7.eranskinean ikusgai).

"Nire semeak asko gozatu du jarduera honekin", "Haurrentzat identifikatzeko eta familia nola sortzen den ulertzeko proposamen ona" dira gehien errepikatzen diren esaldietako batzuk. Bestalde, egon zitezkeen lekuan egindako zerbitzuari dagokionez, nabarmendu behar da oso ondo ulertu dutela zerbitzuaren helburu nagusia eta, beraz, balioetsi egin dutela. Poztu



egiten dira hurrek adinekoak errespetatzen dituztelako, non bizi diren ikusteko, beren ezaugarri eta premiez jabetzeko, balioetan hezteko beharra baloratzeko, aitona-amonak ondo pasarazteko, lagunartea eta alaitasuna emanez, keinu txiki batekin eta ia konturatu gabe gure adinekoei onura handia eragin diezaieketela egiaztatuz, zoriontsu bihurtuz.

Hona hemen esaldi aipagarrienetako batzuk:

"Semeak asko gozatu zuen bisitarekin, oso ilusionatuta zihoan, eta are gehiago atera zen".

"Beraiena ez den adin bateko pertsonekin jarduerak partekatzen ikasi dute, ikusiz adina edozein dela ere, denok behar dugula maitasuna".

## 6.5 Behaketa taulak

Behaketa taulak oso orokorrak izan dira, sei item eta bai edo ez erantzunak. Orokorrean, bi saioetan zehar, haurren eta emakumeen artean hainbat berdintasun ikusi ditut. Alde batetik, bi belaunaldiak, adimen esfortzua (abestiak gogoratzen eta abesten) eta esfortzu fisikoa (baloia pasatzen) erakutsi dute. Gainera, baloiaren jardueran haurrak nahiz emakumeak enpatizatu dute kontrako belaunaldiarekin ( paseak ematean). Orokorrean, arreta jarri dute, momentu batzuetan, arreta hori mantetzea kostatu arren. Bi saioetan, lehenengo momentuak izan ezik, erosotasuna adierazi dute.

## 6.6 Korrelazioa

Egoerak egoera, Covid-19 dela eta, proiektuaren saio guztiak bertan behera geratu dira, beraz, bi saio bakarrik ebaluatuko dira.

Proiektu honetan parte hartu duten, pertsona guztiak onurak eta proiektu aberasgarria izan dela aitortu dute. Hiru galdetegiak korrelazioan jarriz, puntu positiboak nabarmendu dira. Haurren eta emakumeen arteko erlazioa, bakarrik bi saio izanik haien gogoak eta interesak oso altuak izan dira. Galdetegiak baieztatu dute, proiektu hauek ez direla oso nabariak, hau da, emakume batzuk aldi batean edo inoiz ez dutela parte hartu aitortu dute.

## 7. Ondorioak eta hausnarketa

Proiektuaren helburu nagusia belaunaldien arteko inklusioa ematea eta aldi berean, belaunaldien arteko berdintasunak eta desberdintasunak jarduera motorrean behatzea izan da. Horretarako, teknika eta baliabide desberdinak erabili dira; hala nola, behaketa eskuhartzailea eta elkarrizketak edo inkestak. Hala eta guztiz ere, proiektua garatu izan den bitartean egoera edo baldintza desberdinen ondorioz, proiektua mugatua izan da.

Alde batetik, haur eta helduen eboluzioa jarraitzeko behaketa eskuhartzailea denbora-tarte urri batean eman da. Bi saio bakarrik eraman dira aurrera, interesgarria izango litzateke saio gehiago egitea.

Oro har, ezusteko guztiak alde batera utzita proiektuaren lehenengo bi saioak ondo atera direla esan dezaket. Denborari dagokionez, denbora tarte oso mugatua eskaini zidaten, 16:30tik 17:30era arte, hau da, ordu beteko saioa. Denbora pasa ahala, haurren eta emakumeen arteko konexioa areagotzen joan da. Azkenean, egoerak egoera (Covid-19) bi saio eraman dira aurrera, baina ez diot atea ixten proiektuari, Domus Vi zaharren egoitzaren partetik interesa somatu dudalako (*Ikus bitez, 6. eranskinean*). Esan beharra daukat, haurren eta emakumeen erantzuna oso positiboa izan zela, hau da, plateatutako jardueretan parte-hartze aktiboa eman da. Egia da, saio gehiago beharrezkoak izango zirela nire hipotesi guztiak betetzen diren edo ez jakiteko, eta guztiz nituen helburuak lortzeko.

Beste alde batetik, nire burua ere ikusi dut proiektu honetan guztiz murgilduta. Lehenengo saioan, oso urduri eta adi sentitu nintzen, haur eta agurren artean gertatzen zen guztia kontuan hartu nahi nuelako. Bigarren saioan aldiz, lasaiago nengoen, eta bi belaunaldien poztasuna eta lasaitasuna ikustean, proiektu honek zituen helburu guztiak betetzat eman nituen.

Proiektu hau aurrera eraman den bitartean, haurren eta helduen jarrerak premiazkoak izan dira. Zaharrek asko eskertzen dute haurren presentzia, haien egoera xamurtzen dutelako. Modu pertsonalean asko aberastu nauen proiektua izan da, adinekoen zoriontsu aurpegiak, eta bi belaunaldien arteko harreman sendoa ikusi dudalako.



“La enseñanza que deja huella no es la que se hace de cabeza a cabeza, sino de corazón a corazón.”- Howard G. Hendricks

## 8. Etorkizuneko ikerketa lerroak eta gomendioak

Apaitu den moduan, beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (lehia kognitiboa, pentsamendu eskemen mobilizazioa...). Testuinguru desberdinak eskaini behar zaizkie, pentsatzeko eta jarduteko premia bizi dezaten. Lasaitasunez, bizitakoari buruzko gogoeta eginez eta bizitakoa barneratuz, horiek bereganatzeko. Ikertzeko premiak hauxe eskatzen du: zer egin, nola egin eta norekin egin aukeratzen utziko duten guneak eta uneak eskaintzea. Hau kontuan izanik, proiektua ezin izan da bukatu, saio gehiago premiazkoak izango zirelako, pentsamendu eskemen mobilizazioa eman den edo ez behatzeko, eta batez ere haien arteko harremana sendotzeko.

## 9. Eskerrak eman

Lehenik eta behin, hurrei eta helduei eskerrak eman nahi dizkiet, haiek izan baitira proiektu honen protagonistak eta muina. Domus Bi Berra egoitzari eskertzen diet haien arreta eta duintasuna.





## 10. Bibliografia

- Alonso Jiménez R, eta Moros Garcia MT. Intervención psicomotriz en personas mayores. TOG ( A Coruña) ( interneteko aldizkaria). 2011. (2020/04/28); 8(14): (13p.). Webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.revistatog.com/num4/pdfs/original10.pdf>
- Aramendi, P. (2006). *Gizarte hezitzailea eta helduen hezkuntza*. Donostia. Gakoa.
- Batlle, R. (2013). *El contagio del ApS: El aprendizaje-servicio en España*. El contagio de una revolución pedagógica necesaria.
- Becerril González, R (2015). *Análisis de los hitos de consciencia del envejecimiento a partir de relatos de personas mayores*. Tesis Doctoral, Universidad de Valladolid. Facultad de educación de Palencia. 383p.
- Bernaldo de Quirós Aragón M. (2009) *Intervención psicomotriz en ancianos*. En *Manual de Psicomotricidad* (pp. 181-193) Madrid: Ediciones Pirámide.
- Bentancor, A. (2010). *Integración de adultos mayores, el rol social y la perspectiva intergeneracional en programas educativos*. Montevideo: Trabajo presentado en las IX Jornadas de investigación en la Facultad de Ciencias Sociales, Udelar.
- Berri Gasteiz (u.e) D7. *Konpetentzia motorra* (138 orr.) Webgune honetatik berreskuratuta: [https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/heziberri/oinarrizkoa/doc/s/eranskinak/eranskina\\_II/irteera\\_profila/irteera\\_profila\\_03\\_diziplinarrak/diziplinarrak\\_07\\_motorra\\_garapena.pdf](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/heziberri/oinarrizkoa/doc/s/eranskinak/eranskina_II/irteera_profila/irteera_profila_03_diziplinarrak/diziplinarrak_07_motorra_garapena.pdf)
- Egibarre, M. (2015) *Jarduera motorra eta konpetentzia. 3 zatia*. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.guraso.eus/jarduera-motorra-eta-konpetentzia-3-zatia/>



- Gil Madrona, P., Contreras Jordan, O.R eta Gomez Barreto, I (2008) *Habilidades motrices en la infancia y su desarrollo desde una educación física animada*. Revista iberoamericana de educación, 47, 71-96. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://rieoei.org/historico/documentos/rie47a04.htm>
- Godall, T eta Hospital, A. (2007) *50 propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de educación infantil (4-5 años)*. Colección pedagogías corporales. Paidotribo, liburutik berreskuratua.
- Laforest, J (1991): *Introducción a la Gerontología*. Barcelona. Editorial Herder S.A
- López, M. J. P., & Melero, M. L. (2012). *Para poder trabajar por proyectos de investigación en el aula, primero debemos conocernos*. Revista de Educación Inclusiva, 5(1), 83-94.
- Parages, M.J eta López, M (2012). *Para poder trabajar por proyectos de investigación en el aula, primero debemos conocernos*. Revista de Educación Inclusiva, 5, 87. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4105310>
- Palos, J. (2009). *¿ Por qué hacer actividades de aprendizaje servicio?. Aprendizaje servicio (APS) Educación y compromiso cívico*, 151-161.
- Pérez Gómez, A.I. y Gimeno Sacristán, J. (1992). *El pensamiento pedagógico de los profesores: un estudio empírico sobre la incidencia de los cursos de aptitud pedagógica (CAP) y de la experiencia profesional en el pensamiento de los profesores*. Revista Investigación en la Escuela, 17, 51-73.
- Pinazo, S., & Kaplan, M. (2007). *The benefits of intergenerational programmes. Intergenerational programmes. Towards a society for all ages*, 64-91.

- Sierra, M.A. (1996) *La Expresión Corporal desde una doble perspectiva: la de un alumno y la de un profesor*. Actas del III Congreso Nacional de Educación Física de Facultades de Educación y XIV de Escuelas Universitarias de Magisterio. Guadalajara: Alcalako unibertsitatea.
- Sánchez, M., Butts, D., & Hatton Yeo, A. (2018). *Programas intergeneracionales: hacia una sociedad para todas las edades*.
- Romero, C. (1999). *Expresión Corporal: Cuerpo, Movimiento y Sentimiento*. En D. Linares.
- D.Linares, F. Zurita eta J.A Iniesta (Koord). Actas de las I jornadas Andaluzas Interuniversitarias sobre expresión y comunicación corporal en educación física. *Fundamentos de la didáctica del lenguaje corporal: aportaciones a su desarrollo desde los lenguajes plástico y musical* (pp.69-98). Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Vega, J eta Bueno, B. (1994). *Los programas internacionales*. Envejecimiento y psicología de la salud. Madrid: Siglo XXI.
- Vizcarra Morales, M.T. (2014). *Gorputz adierazpena hezkuntzan*. (EHU argitalpen zerbitzua).
- Terapia ocupacional para mayores en nuestros centros de día. Sitma mayores centro de día. (2019) Webgune honetatik berreskuratuta: <https://stimamayores.es/servicios/terapias/terapia-ocupacional>
- <https://www.youtube.com/watch?v=YsaiuRlw>

## 11. Eranskinak

### 1. Eranskina

#### Saioak

Jarduera guztiak “ Godall, T eta Hospital, A. (2007) *50 propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de educación infantil (4-5 años)*. Colección pedagogías corporales. Paidotribo, liburutik berreskuratutak.

#### **1.SAIOA**

Harrera: Hurren eta agureen jarrerak behatu

1.Jarduera: Amaraberi sistema moduan - Aurkezpenak

Adibidez: Kaixo, ni ..... naiz eta mugimendu bat.

2.Jarduera: Abestiak erakutsi

3. Jarduera: Kuxinak

4. Jarduera: Ezkutatu eta maitatu

5. Jarduera: Usain desberdinak antzematen

6.Jarduera: Mindfunless

7.Jarduera: Zapiekin dantza egin

8.Jarduera: Kilimak

9.Jarduera: Murala egitea (Pisada de colores)



## **2.SAIOA**

- 1.Jarduera: Zer dago kaxa barruan?
- 2.Jarduera: Itzalak
- 3.Jarduera: Zapiekin dantzatu
- 4.Jarduera: Ipuina
- 5.Jarduera: Aulkiak mozorrotu

## **3.SAIOA**

- 1.Jarduera: Ibilaldia
- 2.Jarduera: Maskarak
- 3.Jarduera: Altueraren kontrola
- 4.Jarduera: Non erori da perfumea?
- 5.Jarduera: Zurea, nirea


## **4.SAIOA**

- 1.Jarduera: Korrika eta ikutu
- 2.Jarduera: Argazkiak
- 3.Jarduera: Batzarra
- 4.Jarduera: Agurra

## 2. Eranskina

*Harri-Berri Oleta ikastetxetik Berra Domus Vi egoitzara dagoen distantzia.*

Haurren eskolatik agureen egoitzara joateko erraztasunak daude, oso gertu baitaude bi eraikinak. Mapan ikus daitekeen moduan, bidea oinez 5 minututan egin daiteke. Gainera, garraio-publikoak erabilia, erosotasun gehiago eskaini ahal diegu agureei.



### 3. Eranskina

#### *Proiektuan parte hartu duten emakumeei egindako inkesta*

Emakumeen asebatea proiektuarekiko neurtzeko inkesta hau prestatu da. Lau galdera, eta erantzunak 1-tetik( ezer ez) - 5-eraino (asko).

<b>Belaunaldien arteko elkarrekintza / Proyecto intergeneracional</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
¿Qué tan satisfecho/a estás con la actividad?/Nolakoa izan da zure asebatea ekintza honekiko?					
¿Qué probabilidad existe de que asistas a un evento parecido en el futuro?/Ze probabilitate dago etorkizunean antzekoa den ekintza batean parte hartzeko?					
¿Qué probabilidades existen de que recomiendes el evento tus amigxs?/ Ze probabilitate dago lagunei ekintza gomendatzeko?					
La duración de la actividad fue apropiada/ Jardueraren iraupena egokia izan zen					



Observaciones/ Oharrak:					
-------------------------	--	--	--	--	--

4. Eranskina

**BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARREKINTZAN PARTE HARTZEKO BAIMENA/  
AUTORIZACIÓN PARA TOMAR PARTE EN EL PROYECTO INTERGENERACIONAL**

Norbanakoaren datu babesaren arautegiaren ondorioz, .....jaun/andreak,

**BAIMENTZEN DU:**

1.-EHUko ikasleari:

.....haurra, EHUk eta Mainer Pardavila ikasleak antolatutako ekintza batean parte hartzea.

Hala eta guztiz ere, indarreko legerian xedatutakoari jarraiki, edozein unetan erabili ahal izango duzu datuetara sartzeko, zuzenketak egiteko eta ezeztatze eskubidea. Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan dokumentu hau sinatzen dut ondoko lekuan eta datan.

....., .....(e)ko.....(a)ren.....a

**Sinadura**

---

En virtud de lo dispuesto por la normativa de protección de datos de carácter personal, D./Dña.

.....

**AUTORIZA:**

1.-A la estudiante de la UPV a:

A la niña/o..... en una actividad organizada por la UPV coordinada por Mainer Pardavila.



No obstante, en cualquier momento podrá ejercitar sus derechos de acceso, cancelación y rectificación de lo términos establecidos en la legislación vigente. Para que conste a los efectos oportunos, firma el presente documento en el lugar y fecha abajo indicados.

....., .....de.....de..... Firma

### 5.Eranskina

Erlaxazioa aurrera eramateko **Mantra SAT NARAYAN** abestia erabili nuen: link honetatik berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=zsZlrfdSsw>





## 6. Eranskina

<https://www.domusvi.es/blog/residencia-berra-gipuzkoa/actividad-intergeneracional-domusvi-berra-donostia/>

Domusvi Cuidamos personas en buena compañía

### Blog Residencia Berra - Gipuzkoa

Trabaja con nosotros

Solicitar información

← VER TODOS LOS ARTÍCULOS

Accede a nuestra...

Residencia

**Datos de contacto**

- 📍 Berrabro Bidea, 2, 20017 Donostia, Gipuzkoa, España
- ☎ 94 335 30 30
- ✉ direccion.berra@domusvi.es

Solicitar información

**SUSCRÍBETE A NUESTRO BLOG**

Recibirás un e-mail cada vez que se publique una nueva entrada

Nombre

Email \*

Acepto Política de privacidad y LOPD

CALENDARIO



## 7. Eranskina

### *Gurasoei egindako galdetegia*

Hiru galdera irekiak haurren gurasoak erantzuteko, eta haien asebeta ebaluatzeko proiektuarekiko.

<b>Galdetegia gurasoak</b>
-Aspectos positivos y negativos de la visita a la residencia Berra / Berran egindako bisitaren edo ekintzaren alderdi positiboak eta negatiboak
-¿Comprende la utilidad y beneficios de la visita? / Bisitaren onurak eta erabilgarritasunaz ulertzen dituzu?
-Evalúe del 1 al 5 el proyecto / Proiektua 1etik -5era ebaluatu.

## 8. Eranskina

### *Haur eta agureen behaketa taula*

Bi saioetan erabiltako taula, haurrak eta agureak ebaluatzeko eta saioetan zehar aurrerapausuak ikusteko.

Izena:	Data:	
Jardueran arreta jartzen du	BAI	EZ
Esfortzu fisikoa	BAI	EZ
Adimen esfortzua	BAI	EZ
Gorputz adierazpena erabiltzen du	BAI	EZ
Arreta mantentzen du	BAI	EZ
Erosotasuna adierazten du	BAI	EZ